

PRESENTACION CAMPAÑA *ESPACIOS SIN PENA DE MUERTE*

Las cuatro organizaciones -**Asociación pro Derechos Humanos del País Vasco, Coordinadora Gesto por la Paz, Denon Artean-Paz y Reconciliación y Bakea Orain**- nos proponemos mediante la campaña *ESPACIOS SIN PENA DE MUERTE*, que hoy os presentamos, hacer explícito el compromiso por conseguir que, en Euskal Herria, no haya ningún espacio social en el que la pena de muerte se mantenga a nuestra cuenta, con nuestro silencio.

Somos conscientes de que, todavía hoy, en nuestra sociedad, hay personas y organizaciones que intentan que aceptemos que ETA pueda dar muerte a quienes identifique como enemigos políticos. Pero, cada vez somos más los que nos rebelamos y nos atrevemos a decirles «**¡NO A LA PENA DE MUERTE!**»

A lo largo de este mismo año de 1997, hemos podido comprobar que somos una abrumadora mayoría quienes hemos rechazado la utilización del asesinato como medio de acción política. Hoy, estamos convencidos de que la abolición social de la pena de muerte forma parte del mínimo ético que la gran mayoría de los ciudadanos y ciudadanas requerimos para construir una convivencia democrática basada en el respeto de la dignidad humana y en la garantía de las libertades.

Por eso, mediante la campaña *ESPACIOS SIN PENA DE MUERTE*, queremos contribuir a dar nuevas formas físicas a este convencimiento social. Queremos poner de manifiesto que la pena de muerte está abolida no sólo en nuestras leyes, sino, también, en nuestros corazones.

Vamos a seguir manifestándonos cívicamente cuando vuelvan a repicar las campanas de la violencia. Pero, además, desde hoy hasta el 10 de diciembre, día en que recordaremos, una vez más, la aprobación por la ONU de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, proponemos una forma de acción que exprese nuestra firme voluntad de manifestarnos ante la violencia: se trata de conseguir que **TODOS LOS ESPACIOS SOCIALES DE CONVIVENCIA QUEDEN SEÑALADOS COMO *ESPACIOS SIN PENA DE MUERTE***. Se trata de conseguir que a los violentos les resulte abrumadora la evidencia de que **SUS CONDENAS A MUERTE NUNCA MÁS VAN A SER EJECUTADAS A CUENTA DE NUESTRA INDIFERENCIA NI DE NUESTRA PASIVIDAD**.

Como símbolo y como instrumento de esta campaña, hemos editado un cartel que vamos a hacer llegar a la ciudadanía por dos cauces:

1º De forma directa, ya que cada persona podrá obtener el cartel al comprar el martes de la próxima semana alguno de los periódicos de más difusión. El cartel irá en forma de encarte en todas las ediciones de ese día. Con ese cartel, que podemos colocar en la pared de casa, de nuestro lugar de trabajo, de nuestra asociación, en el tablón del instituto, como forro de la carpeta de estudio, ponerlo sobre el calendario o enmarcarlo, todas las personas podemos:

- a) Hacer saber pacífica y permanentemente que estamos en contra de la pena de muerte

b) Expresar nuestra voluntad de seguir ganando espacios de paz y libertad, espacios sin pena de muerte, espacios de concordia.

2º También a través de las organizaciones que actúan en espacios sociales que consideramos significativos: organizaciones educativas, deportivas, culturales, vecinales, centros universitarios, corporaciones profesionales, clubs de tiempo libre... A todas ellas les remitimos -inicialmente hemos preparado cien envios- un material gráfico y les proponemos que declaren públicamente que:

a) Sus respectivos ámbitos de convivencia son *ESPACIOS SIN PENA DE MUERTE*.

b) Sus miembros, asociados, representados, usuarios... desean comprometerse a defender -en sus respectivos espacios asociativos- la abolición social de la pena de muerte frente a quienes, en esos mismos ámbitos, lleguen a preconizar, sostener o amparar la vigencia de la pena de muerte.

Para facilitar materiales, para aportar sugerencias y dar noticias sobre la aceptación de esta iniciativa y sobre el desarrollo de la campaña, señalamos los siguientes teléfonos: de Navarra (948) 22 68 38; de Alava (945) 22 68 38; de Bizkaia (94) 421 70 37 ó 416 39 29; y de Gipuzkoa (943) 29 00 00 ó 42 72 00. Email: gesto@kender.es

HERIOTZ ZIGORRIK GABEKO GUNEAK KANPAINAREN AURKEZPENA

Gaur aurkezten dizuegun *HERIOTZ ZIGORRIK GABEKO GUNEAK* kanpainaren bidez, lau erakundeok –Bakea Orainek, Denon Artean-Paz y Reconciliación-ek, Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundeak eta Euskal Herriko Giza Eskubideen aldeko Elkarteak, alegia– espreski adierazi nahi dugu gure konpromezua: heriotz zigorrak ez dezala iraun Euskal Herriko inongo gunetan, ez behintzat gure kontura eta guk ezer egiten ez dugulako.

Badakigu, jakin ere, gure gizartean pertsona eta erakunde askok ahalegina egiten dutela, ETAk etsai politikotzat jotzen dituenak hil ditzakeela onar dezagun. Baina gero eta gehiago ari gara horren aurrean matxinatzen eta pertsona eta erakunde horiei “**HERIOTZ ZIGORRIK EZ!**” esatera ausartzen.

Aurtem bertam ere, 1997. urte honetan zehar, argi eta garbi ikusi ahal izan dugu gehien-gehienek politika egiteko bidetzat hiltzea gaitzetsi egiten dugula. Gaur zalantzarik gabe dakigu herritarrik gehien-gehienek gizakien duintasunean eta askatasunaren defentsan oinarritutako elkarbizitza demokratikoa eraiki nahi dugula eta elkarbizitza hori eraikitzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun etikazko gutxienekoen artean, heriotz zigorra gizartetik kentzea ere badagoela

Horregatik, *HERIOTZ ZIGORRIK GABEKO GUNEAK* kanpainaren bidez, gizartean dagoeneko hedaturik dagoen kontzientzia horri beste gauzatze fisiko bat eman nahi diogu. Argi adierazi nahi dugu heriotz zigorra, gure legeetatik ez ezik, gure bihotzetatik ere kenduta dagoela.

Indarkeriaren kanpaiek berriz ere jotzen dutenean, guk manifestazio zibikora joko dugu berriro ere. Baina gainera, gaur hasi eta abenduaren 10a arte –egun honetan ospatuko baitugu Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala ontzat eman zuen eguna– indarkeriaren aurrean ezer egin gabe ez gelditzeko gure asmoa argiro adierazten duen ekintza mota bat proposatzen dugu. **GURE GIZARTEKO ELKARBIZITZAKO GUNE GUZTIAK HERIOTZ ZIGORRIK GABEKO GUNE IZENDA DAITEZELA** lortu gura dugu. Indarkeriaz jokatzen dutenek zalantza izpirik gabe jakin behar dute **EUREN HERIOTZ KONDENAK INOIZ ERE EZ DITUZTELA AURRERANTZEAN GURE ARDURARIK EZAZ EDO GUK HAIEN AURREAN EZER EGIN GABE GERATZEN GARELARIK GAUZATUKO**

Sinbolotzat eta kanpaina honetarako tresna izan dakin, horma irudi hau inprimatu dugu. Herritarrek bi bidetatik jasoko dute, hots:

- Zuzen-zuzenean, pertsona bakoitzak datorren asteko egun batean, egunkaririk zabalduenak erostean, horma irudia eskuratu ahalko du. Horma irudia egun horretako edizio guztien barruan sartuta joango da. Kartela etxeko horman jar dezakegu, gure lantokian, gure elkarteetan, institutuko oholtzan, harekin ikasteko karpeta bildu, egutegiaren gainean jarri edo marko bat ipini ahal diogu. Eta haren bidez honako helburu hauek lortuko ditugu:

a) Bakez eta etengabe, heriotz zigorraren kontra gaudela jakinaraz dezakegu.

b) Gure borondatea adieraz dezakegu: bake eta askatasun guneak, heriotz zigorrik gabeko guneak, adostasun guneak irabaziz joatea.

- Bigarrenaz, bereziki adierazgarritzat jo ditugun gizarte guneen, hau da, hezkuntza, kirol, kultura eta auzo erakundeen, unibertsitate zentruen, lanbide elkarteetan, aisialdiko klubetan eta abarren bidez –hasteko ehun bidalketa prestatu ditugu–. Hauei guztiei material grafiko jakina bidali diegu eta haren bidez bi gauza aldarrikatzea proposatzen diegu:

a) Euren elkarbizitzako eremuak **HERIOTZ ZIGORRIK GABEKO GUNEAK** direla.

b) Elkarbizitzako eremu horretan daudenek, euren eremu horretan bertan heriotz zigorraren alde egiten edo hura sustatzen zein batesten dutenen aurrean, izendapen hori defenditzeko konpromezua hartzen dutela.

Materialak jasotzeko, iradokizunak eskaintzeko edota ekimen honen eta oro har kanpaina osoaren martxari buruzko informazioa emateko, horma irudiaren atzeko aldean honako hauek adierazten dira:

Telefonoak : (94) 421 70 37 ; (94) 416 39 29 ; (943) 29 00 00; (943) 42 72 00 ; (945) 22 68 38 ; (948) 22 68 38 .

Email : gesto@kender.es